

BALOREZKO PROPOSAMENAK

- Ze behar edo arazo konpontzen duzue?
- Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure bezeroek dituzten arazo pertsonalak (psikologikoak, fisikoak eta sozialak) konpontzeko asmoz sortu dugun enpresa da. Bertan, gizakiaren osasunaren inguruko tratamendu pertsonala egiten dugu, beraien egoera sakonki aztertuz. Gaur egun, geroz eta osasun arazo gehiago identifikatzen ari dira, hortaz, zifra hori gutxitzeko sortu dugun enpresa da.

Gure bezeroei hona etortzea bultzatzen dien arrazoia honako hau da, tratamendu pertsonalizatua ematen dugu beraien beharren arabera, beraien beharraren maila ere aztertzen dugu eta bertan beraien osasuna hobetzeko asmoz tratamendu espezifiko bat egiten dugu. Horrez gain, hainbat arrisku murriztu ditzakegu, esaterako, beraien buruaz beste egiteko aukera, elikadurarekin zer ikusia duten arazo larriak...

Arazodun pertsona hauek ordaindu beharko dutena ez da beraientzat arazo bat izango, momentuan duten arazo bakarra beraien egoera hobetzea izango baita.